



## Ezjakintasunak

### Gerardo Markuleta

“Batak ez du bestea kentzen” poema-liburua irakurri eta gero, hain sentsazio atsegina utzi dit, jarraian egile beraren beste zerbait irakurri nahi izan dudana. “Ezjakintasunak” liburua bere poesia era lakoniko eta intimista batez planteatzen jarraitzen du; oso begirada sentikorra du (liburu osoa da oso sentikorra –horretarako da poesia, ezta?–). Badu halako minimalismo bat. Bestalde, Markuletaren poesiek halo bat, lorratz bat uzten dute... eta hitzarekiko eta hizkuntzarekiko oso sentimendu estetiko noblea erakusten du beti. Bere originaltasunagatik ere nabarmentzen da. *Amets lorategia* dio “Ateak” izeneko poemari (zeinen irudi ederra!), baina poema osoa da irudi eder bat: ateak = galderak (izugarri iradokorra, ezta?). Adimentsua da, ironikoa batzuetan (baina ez da mintzen zaituen ironia-mota hori). Markuletaren poesiak freskotasuna dakar. Beste batzuetan, poemek badute halako aire misteriozko bat..., esaterako, “Ontsa hiltzeko argibideak” poemaren kasuan. Ulertzen ez duzun ezohiko hitz baten esanahia hiztegian begiratzera deliberatu ostean, alferrikako hitza ez dela ohartzen zara (esaterako, “pezo” hitza...) Maitasun-poema txukunak ditu...

Eta horrela jarrai nezake... loreak bota eta bota. Bai, Gerardo Markuleta gogoko dut.